

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, FONTETXAKO KONTZEJUAREN FISKALIZAZIO TXOSTENARENA, 2018

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osoko bilkurak joan den urriaren 7an aho batez onartu zuen Fontetxako Kontzejuaren ekonomia eta finantzaren kudeaketaren gaineko fiskalizazio txostena, 2018ko ekitaldiari dagokiona.

Ondorioetan, Epaitegiak azpimarratu du ez duela aurrekontu bat egin 2018ko ekitaldirako, ez eta energia elektrikoa hornitzeko ordenantza arautzailea eta tarifak onartzeko erabakirik hartu ere. Berebat, ez dago Erregidore-Presidenteak Kontzejuari egindako 30.000 euroren mailegua euskarrituko duen kontraturik, ez eta lursail baten gaineko adituen baloraziorik ere, zeina Kontzejuari esleitu baitzitzaion bere jabetzakoa den ongizateko fundazio pribatuaren hainbat gastu judizial bere gain hartzearen truke, ordaina nahikoa dela ondorioztatzeko bide emango duena. Gainera, AFak Kontzejuen eskura jarritako ereduaren arabera egindako Kontuen Liburuak ez du 2018ko abenduaren 31n kobratu eta ordaindu beharreko saldoen berri ematen eta Kontzejuak ez du kapital bizia murrizteko nahitaezko plana onartu, gehienera bost urteko epean zorraren gehienezko bolumena murrizteko, zeina sarrera arrunten % 10 baita.